Agintariak eta Langileria

Oposaketak eta Lehiaketak

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

5608

EBAZPENA, 2008ko urriaren 9koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu zuzendariarena, zerbitzu eginkizunen sistemaren bidez Gizarte Gaien Arloko arduradun lanpostua betetzeko deialdi publikoa iragartzeko dena.

Sail honetako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzan Gizarte Gaien Arloko arduradun lanpostua betetzeko premia dugunez, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzak aldez aurretik aldeko txostena eman duelarik, sailak agindu honen eranskinean adierazitako lanpostua zerbitzu-eginkizunen prozeduraren bidez betetzeko deialdia egitea erabaki du. Hauexek dira deialdiaren

OINARRIAK

Lehenengoa.– Eranskinean lanpostua bete ahal izateko zehazten diren baldintzak betetzen dituzten funtzionarioek eskatu dezakete ebazpen honen bidez deialdira ateratzen den eta egun hutsik dagoen lanpostua.

Bigarrena.– Interesdunek Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailera bidali beharko dituzte eskabideak, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik 5 egun balioduneko epean, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduko 11. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz — agindu horrek arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura (2006ko ekainaren 30eko EHAA, 124. zk.koa).

Eskabide-eredua eta hori betetzeko jarraibideak 57. zenbakia daraman martxoaren 22ko EHAAren 5125. orritik 5130. orrira ikus daitezke.

Hirugarrena.– Eskatzaileek eskabideak aurkezteko epearen barruan Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Zerbitzu Zuzendaritzara (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) bidali behar dituzte merezimenduak eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatzeko agiriak (azken horiek, administrazio honetako Erregistroan jasota ez baldin badaude aurkeztu behar dira).

Autoridades y Personal

Oposiciones y Concursos

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

5608

RESOLUCIÓN de 9 de octubre de 2008, de la Directora de Servicos del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se anuncia convocatoria pública para la provisión, por el sistema de comisión de servicios del puesto de trabajo Responsable Área de Asuntos Sociales.

Siendo necesaria la provisión del puesto de Responsable área de asuntos sociales en la Dirección de Ejecución Penal de este Departamento, y previo informe favorable de la Dirección de Función Pública, se acuerda anunciar la provisión, por el procedimiento de comisión de servicios, del puesto de trabajo que se relaciona en el anexo de la presente resolución, con arreglo a las siguientes

BASES

Primera.– El puesto de trabajo que se convoca (vacante en la actualidad) podrá ser solicitado por los funcionarios que reúnan los requisitos exigidos para el desempeño del mismo establecidos en el anexo de la presente resolución.

Segunda.– Los interesados dirigirán sus solicitudes a la Dirección de Servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, dentro del plazo de 5 días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución conforme a lo establecido en el artículo 11 de la Orden de 30 de junio de 2006 de la Consejera de Hacienda y Administración Pública que regula el procedimiento para la provisión transitoria, en comisión de servicios o como personal funcionario interino, de puestos de trabajo del a Administración General del a Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos (BOPV n.º 124 de 30 de junio de 2006).

El modelo de solicitud y las instrucciones para su cumplimentación pueden encontrarse en el BOPV n.º 57 de 22 de marzo, páginas 5125 a 5130.

Tercera.– Los solicitantes deberán enviar a la Dirección de servicios del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social c/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz dentro del plazo de presentación de solicitudes toda la domentación acreditativa de los meritos y de los requisitos exigidos si no constan en el registro personal de esta administración.

Laugarrena.– Gizarte Gaien Arloko arduradun lanpostua betetzeko, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko ekainaren 30eko Aginduan ezarritakoa aplikatuko da —agindu hori 2006ko ekainaren 30eko EHAAn argitaratu zen, 124. zenbakian, eta horren bidez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura—. Aplikatuko den merezimenduen baremoa, berriz, aipatutako aginduko lehenengo xedapen iragankorrak zehaztutakoa izango da; eta kasu honetan 2002ko martxoaren 22ko EHAAn, 57. zenbakian, argitaratutako 2002ko otsailaren 26ko Ebazpeneko 1.b) eranskina dagokio.

Bosgarrena.– Baremo horren arabera, merezimenduen balorazioa ondorengoek osatutako ebaluazio-batzordeak egingo du:

Batzordeburua: Xabier Carlos Echebarria Zarrabeitia.
Batzordekidea: Pablo Martínez Larburu.
Idazkaria: Begoña Martínez Azkona.

Bete beharreko lanpostuaren baldintzak eta deialdiaren datuak, edukia eta balorazio-irizpideak barne, Ebazpen honen eranskinean jasotzen dira.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Kabinetearen sailburuordeari, argitara eman eta hurrengo egunetik hilabeteko epean.

AZKEN XEDAPENA

Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera egongo da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko urriaren 9a.

Zerbitzu zuzendaria,
TERESA AMEZKETA ALEGRÍA.

ERANSKINA

Lanposturako bete beharreko baldintzak (2008ko martxoaren 31ko EHAA, 60 zk.koa):

Izena: gizarte-gaien arloko arduraduna.

Kodea: 510262.
Dotazioa: 4.
LO maila: 27.
Osagarri espezifikoa: II C.
Zentro organikoa: Zigor Betearazpenaren Zuzendaritza.
Lantokiko udalerria: Vitoria-Gasteiz.
Hizkuntza-eskakizuna: 4.
Derrigortasun-data: 2007-10-31.
Adm:APE.
G: A.

Cuarta.– Para la provisión del puesto Responsable area de asuntos sociales será de aplicación lo establecido en la la Orden de 30 de junio de 2006, de la Consejera de Hacienda y Administración Pública que regula el procedimiento para la provisión transitoria, en comisión de servicios o como personal funcionario interino, de puestos de trabajo del a Administración General del a Comunidad Autónoma del País Vasco y de sus Organismos Autónomos (BOPV n.º 124 de 30 de junio de 2006) y el baremo de méritos de aplicación será el dispuesto por la disposición transitoria primera de la citada Orden, correspondiendo en este caso el anexo 1.b) de la Resolución de 26 de febrero de 2002 (BOPV n.º 57, de 22 de marzo de 2002).

Quinta.– La valoración del los méritos conforme al citado barémo se llevará a cabo por una comisión de evaluación formada por:

Presidencia: Xabier Carlos Echebarria Zarrabeitia.
Vocalía: Pablo Martínez Larburu.
Secretaría: Begoña Martínez Azkona.

Los requisitos del puesto a ocupar y los datos de la convocatoria, con indicación del contenido y criterios de valoración, figuran en el anexo que se acompaña a la presente resolución.

Sexta.– Contra la presente resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera del Gabienete en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Resolución entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 2008.

La Directora de Servicios,
TERESA AMEZKETA ALEGRÍA.

ANEXO

Requisitos del puesto a ocupar (BOPV n.º 60, de 31 de marzo de 2008):

Denominación: Responsable Área de Asuntos Sociales.
Código: 510262.
Dotación: 4.
Nivel C.D: 27.
Complemento específico: II C.
Centro orgánico: Dirección de Ejecución Penal.

Centro de destino: Vitoria-Gasteiz.
Perfil lingüístico: 4.
Fecha de preceptividad: 31-10-2007.
Adm: APE.
G: A.

Kidegoa: Kidegoa-aukerak-eskalak A taldea (Estatuko Administrazio Publikoak).

Deialdiaren datuak:

Esparrua:

Arreta Soziala, Lana eta Lan-antolamendua
Helduen Zigor Arloko Justizia
Zigor arloko jurisdizkio-organoekin lankidetza

Delituen biktimei, atxilotuei, gizarteratuei laguntza

Justizia konponarazlea
Espetxeak.

Zereginak:

Gizarte Gaietako programak egitea eta alor horretako planak, programak eta epaien betearazpena kudeatzea. Horretarako, jarduerak koordinatu eta aholkatzen ditu eta Gizarte Gaietako balorazio-txostenak egiten ditu.

Eginkizunak:

A000.007 Kide anitzeko organo, batzorde, batzar, mahai edo organo aholku-emaileetako idazkari-lanak egitea.
A022.002 Gizarte Gaietako jardueretan aholkuak ematea.
A022.004 Gizarte Gaietako epaien betearazpena kudeatzea.
A022.006 Gizarte Gaietako programak egitea.
A022.011 Gizarte Gaien arloko plna eta programak kudeatzea.
A022.014 Gizarte Gaien arloko balorazio-txostenak egitea.
A022.016 Gizarte Gaien aroko jarduerak koordinatzea.

Proba baztertzailea:

Ariketak bi zati izango ditu: Proba objektiboa eta kasu praktikoa.

Lehenengo zatia aukerako 4 erantzun itxi izango dituen 20 galderako testa izango da eta, bigarrena, kasu praktiko bat.

Bi zatietan, ariketaren edukiko oinarrizko kontzeptuak jakitea baloratuko da, eta zati praktikoan balio berezia emango zaio kontzeptuak aplikatzeko gaitasunari eta antzeko kontzeptuak argi bereizteko gaitasunari.

Probaren edukia arau hauetako oinarrizko kontzeptuei buruzkoa izango da: Zigor Kodearen Zati Orokorra, Prozedura Kriminaleko Legearen I, II, IV eta V. tituluak, Espetxeetako Lege Organiko Orokorra eta Espetxe Erregelemandua. Izangaiek eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzak testu guztiak emango dizkie. Eskaera egiteko, 945 90 91 telefono-zenbakira deitu behar da lan-ordutegian.

Probaren lehenengo zatian 3,5 puntu lortu daitezke. Zuzen erantzundako erantzun bakoitzak 0,175 puntu

Cuerpo: Cuerpo-opciones-escalas grupo A (APE).

Datos de la convocatoria:

Ámbito:

Atención Social, Empleo y Ordenación laboral.
Justicia penal de adultos.
Cooperación con los órganos jurisdiccionales del orden penal.
Asistencia a la víctima del delito, al detenido, a la reinserción social.
Justicia restaurativa.
Penitenciario.

Misión:

Elaborar programas en Asuntos Sociales y gestionar planes, programas y el cumplimiento de sentencias en la referida materia. Para ello, coordina y asesora actividades y elabora informes de valoración en Asuntos Sociales. Asimismo, actúa como secretario en

Funciones:

A000.007 Actuar como secretario en órganos colegiados, comisiones, juntas, mesas u órganos consultivos.
A022.002 Asesorar actividades de Asuntos Sociales.

A022.004 Gestionar cumplimientos de sentencias en Asuntos Sociales.
A022.006 Elaborar programas de Asuntos Sociales.
A022.011 Gestionar planes y programas en materia de Asuntos Sociales.
A022.014 Elaborar informes de valoración en materia de Asuntos Sociales.
A022.016 Coordinar actividades en materia de Asuntos Sociales.

Prueba eliminatoria:

Ejercicio con dos partes: prueba objetiva y caso práctico.

La primera consistirá en un test de 20 preguntas con 4 respuestas alternativas cerradas y la segunda en un supuesto práctico.

En los dos ejercicios se valorará el conocimiento de los conceptos básicos del contenido del ejercicio y en el supuesto práctico especialmente la capacidad de aplicación conceptual y la capacidad de distinguir conceptos similares con claridad.

El contenido del ejercicio se basará en los conceptos fundamentales que derivan de la Parte General del Código Penal, de los Títulos I, II, IV y V de la Ley de Enjuiciamiento Criminal, de la Ley Orgánica General Penitenciaria y del Reglamento Penitenciario. Todos los textos podrán ser facilitados a petición de las personas aspirantes por la Dirección de Ejecución Penal del Gobierno Vasco, en horario laboral al teléfono 945 01 90 91.

La primera parte de la prueba se valorará con 3,5 puntos. Cada pregunta correctamente contestada ten-

balioko ditu eta gaizki erantzundako galdera bakoitzeko 0,07 puntu kenduko dira. Bigarren zatiak 3,5 puntu balioko ditu. Probaren gehieneko puntuazioa 7 puntukoa izango da, eta gainditzeko 3,5 puntu lortu beharko dira.

Proba egiteko ezin izango da inolako kontsulta-materialik erabili. Izangaiek ordu eta erdi izango dute proba egiteko.

Probaren tokia, eguna eta ordua, gutxienez egutegiko 7 egun aurretik jakinaraziko zaizkie izangaiei.

drá un valor de 0,175 puntos y cada pregunta incorrecta restará 0,07 puntos. La segunda prueba se valorará sobre 3,5 puntos. La puntuación máxima de la prueba será de 7 puntos, considerándose superada solamente si se obtienen 3,5 puntos.

Para la realización de las pruebas no se podrá llevar ningún material de consulta. Las personas aspirantes dispondrán de hora y media para su realización.

El lugar, fecha y hora de realización de la prueba se comunicará a las personas aspirantes con al menos 7 días naturales de antelación.